BAKEAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

INSTITUTO NAVARRO DE LA MEMORIA REN NAFARROAKO INSTITUTUA

# MEMORIA DUTEN ESKOLAK

## PROGRAMA

2020-2021 IKASTURTEA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

INSTITUTO NAVARRO DE LA MEMORIA
REN NAFARROAKO INSTITUTUA

**HARREMANETARAKO**
Nafarroako Memoriaren Institutua
Arrieta Kalea 12, 5. solairua
31002 Iruña
inm@navarra.es

**ARGITARATZEN DU:** Nafarroako Gobernua- Gobierno de Navarra
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

**DISEINU ETA MAKETAZIOA:** Horixe Diseño

**INPRIMATZEN DU:** Print It Soluciones Digitales S.L.

INSTITUTO NAVARRO DE LA
MEMORIA
REN NAFARROAKO INSTITUTUA

# MEMORIA DUTEN ESKOLAK

## PROGRAMA

2020-2021 IKASTURTEA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA . . . . . . . . . . 5

1. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA . . . . . . . . . . 6

   1.1. GERRA ETA ERBESTEALDI KULTURALA NAFARROAN. GERARDO LIZARRAGA MARGOLARIA . . . . . . . . . . 6

   1.2. TAILERRA: IHESALDI HANDIA . . . . . . . . . . 7

   1.3. ON LINE MINTEGIA: MEMORIAKO HEZKUNTZA-PROIEKTU BAT GARATZEKO TRESNAK. . . . . . . . . . . 7

2. PROPOSATUTAKO JARDUERAK . . . . . . . . . . 8

   2.1. IKASTETXEEN ARTEKO JARDUERAK, NMIK ANTOLATUAK . . . . . . . . . . 8

   2.2. IKASTETXEAN EGITEKO JARDUERAK . . . . . . . . . . 11

   2.3. IRTEERAK . . . . . . . . . . 12

   2.4. ABIAN DAUDEN PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK . . . . . . . . . . 13

3. IKASTETXEEKIKO HITZARMENAK . . . . . . . . . . 15

4. MEMORIA DUTEN ESKOLEN SAREA . . . . . . . . . . 15

# AURKEZPENA

Nafarroako Memoriaren Institutuaren (NMI) *Memoria duten Eskolak* programa zeharkako proiektu gisa jaio da eta bere helburua hezkuntza alorraren eta memoriaren aldeko politika publikoen elkargune izatea da, batez ere memoriaren tokiei, desobiratzeei eta giza eskubideen urraketa prozesuen ikerkuntzei dagokienean. Gizarte zientzien didaktikaren alderik berritzaileenarekin bat egiten du, gizarte mailako arazo esanguratsuenen konponbidea gelan bideratzea bultzatuz eta herritar demokratikoen heziketan indarra jarriz. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da belaunaldi berriak azken hamarkadetan errepresio frankistaren inguruan historiografiak bildutako ekarpenetara hurbiltzea, zalantzan jarriz gizartean zabalduta dauden irudikapenak. Baina, ezagutza historiko hori kaxoi kurrikular batean hermetikoki itxia gera ez dadin, beharrezkoa da ikaslea prozesu historiko haien ondorioz hamarkadetan luzatu den eta ondorioak gaur ere bistaratzen dituen itzal horretara bertaratzea, betiere pentsamendu kritiko batetik eta giza eskubideekiko errespetua oinarri duen heziketaren konpromisotik.

Programak lau interesgune ditu. Lehenengoa, irakasleriaren formazioa, jarduera zientifikoa eta didaktikoa eragitea eta material eta esperientzien sorkuntza kooperatiboa bultzatzea helburu dituena. Bigarren, ikasleei zuzenduriko jarduera hezigarriak. Memoriarekin lotura duten toki eta pertsonen ezagutza ahalbidetzea dute helburu. Ez da eskaintza itxia, aukera ezberdinen proposamenetara irekia dago erabat. Hirugarrenak ikastetxeekin hitzarmenak sinatzea du helburu, Memoria Historikoaren inguruko hezkuntza ikerketa eta berrikuntzako, prestakuntzako eta/edo pentsamendu zientifikoa zabaltzeko proiektu bateratuak bultzatzeko. Azkenik, *Memoria duten Eskolen* sarea, sortze bidean dagoena. Ikastetxeek etapa ezberdinetan sor ditzaketen proiektu propioak bildu eta elkarbanatzea du helburu. Beste lurralde batzuetara proiektatu nahi duen sarea.

# 1. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

Eskaintza hau Hezkuntza Departamentuko ILZrekin elkarlanean egiten da. Ikastaro hauetako izen ematea ILZren ohiko bideetatik egingo da.

## 1.1. GERRA ETA ERBESTEALDI KULTURALA NAFARROAN. GERARDO LIZARRAGA MARGOLARIA.

Ikastaro honen helburua da gogoeta egitea erbestearen oroimenak, eta bereziki erbestealdi kultural eta intelektualarenak, gizarte moderno eta demokratiko baten hezkuntzan izan dezakeen zereginari buruz, elkarrizketarako eta balio demokratikoen garapenerako lekua baita, giza eskubideak errespetatuz. 2020ko urriak 26, azaroak 23, 2021eko urtarrilak 23, 29 eta 30 garatuko da.



Formakuntzak ondoko helburuak ditu:

- **A.** Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuaren aldeko balioak sustatzea, gure iragan traumatikoari buruzko hausnarketatik abiatuta.
- **B.** Gogoeta egitea memoriak hezkuntza-ikaskuntzarako tresna gisa duen garrantziari buruz.
- **C.** Erbestearen memoria historikoa ardatz izango duten hezkuntza-esperientziak aurkeztea.
- **D.** Nafarroako erbesteratuek kulturaren munduan izan duten papera ezagutzea.

## 1.2. TAILERRA: IHESALDI HANDIA.

**DATAK:** 2021ko urtarrilak 12, 19, eta 26, otsailak 2 eta 9, martxoak 2 eta 9, Huarte BHIn. Tailerra honek memoria historikoaren berreskurapena herritartasun demokratikoaren oinarri gisa eta “ondare deserosoaren” erabilera, eta escape room jolasa baliabide didaktiko gisa hartuta, uztartu nahi ditu. Helburuak hauxek dira:

**A.** *Ihesaldi handia* zentroarteko programaren oinarriak ezagutaraztea.

**B.** Estrategia metodologiko mistoak aplikatzea, ikasgelan proiektu propio kokatuta eta tutorizatuta bat garatzeko eta ezartzeko.

**C.** Lan-taldeak sortzeko eta dinamizatzeko dinamika ludikoak erabiltzea.

**D.** Ikaskuntza-eszenatoki berrien eragile aktibo eta sortzaile izatea.

**E.** Hezkuntza-proiektuan ikasleen gaitasunen bilakaera ebaluatzea.

**F.** *Feedback*a eskaintzea proiektua sortu, garatu eta ebaluatzeko prozesuan.

**G.** Ikasleen artean pentsamendu kritikoaren garapena sustatzea, memoria historikoari buruzko ikerketak gidatuta.

**H.** Etorkizuneko belaunaldiei arreta berezia eskainiz, giza eskubideen balioa eta bakearen kultura sustatzea, oroimenean oinarrituta.

## 1.3. ON LINE MINTEGIA: MEMORIAKO HEZKUNTZA-PROIEKTU BAT GARATZEKO TRESNAK.

**DATAK:** bigarren hiruhilekoaren amaiera eta hirugarrenaren hasiera. Hiru lan-fase:

**A.** Proiektua garatzeko tresnak:

1. FNafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Dokumentazio Fondoa.
2. Nafarroako Lurralde Informazio Sistemak. Hobien Mapa.
3. Oroibidea.
4. Nafarroako Memoriaren Institutuaren Dokumentu Zentroa.

**B.** Lan pertsonala. Gelan aplikatzeko proposamen didaktikoa egitea.

**C.** Jardunbide egokien saioa eta egindako proposamenen azalpena.



# 2. JARDUEREN ESKAINTZA

## 2.1. IKASTETXEEN ARTEKO JARDUERAK, NMIK ANTOLATUAK.

(Unean uneko osasun-egoeraren arabera gauzatuko dira)

### A. GR 225: ASKATASUNAREN BOTILAK (EKAINA 2020)

GR225 ibilbideko mendi martxa honen bidez Ezkaba mendiko San Kristobal kartzelatik ihes egin zuten presoen ibilbidea berregiten da bi etapetan. Lehen (Ezkaba-Olabe) eta azken etapa (Sorogain-Urepel) egiten dira.



Etapen hasieran aurkezpen txiki bat egiten da bizipen horren zergatia azalduz. Etapetan zehar ihesaldiari eta natura inguruari buruzko azalpenak ematen dira. Eta etapak bukatzean, ikasleek aurrez ikasgelan prestaturiko memoriaren aldeko ekitaldi xume bat egiten dute.

Irteeraren aurretik ikasgelan egiteko ikasgai ezberdinen (Gorputz Heziketa, Gizarte Zientziak, Natur Zientziak, Biologia eta Geologia).

Aurreko urteetako bideoak:

- 2019ko ekaina. https://youtu.be/KS_8aWe6k6Q
- 2018ko ekaina. https://youtu.be/35FdMjmS3q4

2020ko ekainean ezin izan zen egin konfinamendu-egoeragatik.

## B. BELAUNALDI ARTEKO TOPAKETAK SARTAGUDAKO MEMORIAREN PARKEAN ERAILDAKOEN SENIDEEKIN (2021KO APIRILEAN)



### GOIZEKO IRTEERA

#### EGITARAUA

**A.** Ekitaldiaren aurkezpena, eta Sartagudako Memoriaren Parkearen eta Alargunen Herria Elkartearen aurkezpena.

**B.** Taldeka eraildakoen senideekin topaketa eta elkarrizketa.

**C.** Tailerrak:

- Artistikoa: Eskulturen bistak, krokisak edo marrazkiak egitea.
- Poetikoa: olerkien egitea eta irakurketa.
- Musikala.

**D.** Sartagudako Memoriaren Pasealekuan bisita.

**E.** Azken topaketa: marrazkien, poemen eta abestien aurkezpena.

2019ko udaberriko jardunaldiaren bideoa

➲ https://youtu.be/GsuuyPd6tvk

2020an jarduera bertan behera geratu zen Covid-19 pandemiagatik, baina Tafallako eta Marcillako BHIk prestatu zituzten antzezpenen entseguetako irudiak utzi zizkiguten.

➲ https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/blog/2020/05/07/gerra-zibil-baten-desobiratzea-proiektua-tafallako-ies-sancho-iii-el-mayor/

➲ https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/blog/2020/04/27/lur-azpian-proiektua-ies-marques-de-villena/

## C. DESOBIRATZEETARA BISITAK

Bisita hauek desagertuen minera hurbiltzeko, lekukoen, senitartekoen edo memoria historikoa lantzen duten elkarteen testigantzak entzuteko eta desobiratze lanean ari diren lantaldearen eskutik azalpen zientifikoak ezagutzeko aukera ematen digute.

Jarduera honen ezaugarriak direla eta, denbora gutxiko tarteaz jartzen gara ikastetxearekin harremanetan. Horrenbestez, ikastetxearen ardura da ikasle parte hartzaileen antolaketa eta bisitarako ezinbestekoa den motibazioa aurrez landuta eta aurreikusita izatea.



Aurrez egindako esperientzien adibideak:

Barañaingo Alaitz BHI, Iturrama BHI eta Iruñeko Osasun-Eskolaren bisita Burutainera.
➲ https://youtu.be/4G8FZ9LF2Ng

Askatasuna BHI eta San Fermin Ikastolaren bisita Urdaitzera.
➲ https://youtu.be/BwrBv_PFiAE

Ezkaba LHIren bisita Leranotzeko desobiratzera.
➲ https://youtu.be/sX5addd-nhs

Berriozar DBHI eta Zizur BHIren bisita Iruzkunko desobiratzera.
➲ https://youtu.be/TTnO3ZArZc8

## D. ANTZERKI LANAK

Gayarre Antzokiaren programazioan dauden antzezlanak dira; Gayarrek bat egiten du Nafarroako Memoriaren Institutuarekin ikasleei zuzenduriko saioak antolatzeko. Antzerki lanok Gayarreko programazio didaktikoaren barnean antolatzen dira, baina oraindik ez dira argitaratu. Baldintzak hobetzen badira, programatzen diren obren edo bestelako jardueren berri emango da.

2019-2020 ikasturtean bi obra programatu ziren, ***Barro*** eta ***Vencidos.*** Honako hau, Gerra Zibila eta erbestearen testuinguruan, apirilerako aurreikusita zegoen, baina ezin izan zen antzeztu. Ikasturte honetan, hezkuntza-proiektu bat duten ikastetxeentzat programatu ahal izango da, baldin eta proiektu horretan sar badaiteke.

## 2.2. IKASTETXEAN EGITEKO JARDUERAK

### A. BIKTIMA HEZITZAILEEN PROGRAMA: ERREPRESIO FRANKISTAREN BIKTIMEKIN TOPAKETAK IKASTETXEETAN

Biktima horietako batzuk eta beren testigantzak ondoko bideoetan azaltzen dira. Nafarroako Gobernuak antolaturiko ekitaldiak dira.

- https://youtu.be/91clMtULKjg
- https://youtu.be/13mlyp3YvcI

### B. MEMORIA HISTORIKOKO ELKARTEEKIN ETA ADITUEKIN HITZALDIAK, ETA DOKUMENTALEN PROIEKZIOA




#### 1. DOKUMENTALEN PROIEKZIOAK:

- ***Gurserako bidea.*** Nafarroako Gobernua.
- ***Desafectos. Francoren esklaboak Pirinioetan*** Memoriaren Bideak
- ***Dena kendu ziguten*** Patxi Egilaz
- ***Ezkaba***. Iñaki Alforja
- ***Zerrauts ogia*** (1951ko grebari buruzkoa). Patxi Egilaz
- ***Florecica, Josefina Lambertoren historia***.
  Virginia Senosiáin eta Juan Luis Napal

#### 2. HITZALDIAK:

- Amaia Kowasch: "Emakumeen elkartasun sareak".
- Fermín Ezkieta: "Ezkabako ihesa".
- Nafarroako Memoria Historikoaren Fondo Dokumentala: "Errepresioa Nafarroan - Balantzea".
- Memoriaren Bideak: "Frankismoren esklabuak".
- Txinparta-Fuerte de San Cristóbal: "San Kristobal Gotorlekua eta Botilen Hilerria".
- Aranzadi Zientzia Elkartea: "Desobiratzeak".
- "Elkarteen lana". AFFNA36NAFSE, Bideko Mitxingorria, Asociación Pueblo de las Viudas, Txinparta, Areka...

### C. ERAKUSKETEN PROGRAMAZIOA ETA ERAKUSKETETARA BISITA:

Nafarroako Memoriaren Institutuak hainbat erakusketa ditu ikastetxeetan ezartzeko. Aldez aurretik, Memoria Historikoa eta Hezkuntza blogaren bidez erreserba egin behar da:

- https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/erakusketak

**Ezkaba 1938-2918**
https://youtu.be/4hOMwHbwpHw

**Desobiratze goiztiarrak 1939-2019**
https://youtu.be/AyuR2B38A5g

**Uriz Pi ahizpen inguruko erakusketa**
https://youtu.be/uvYZKAVHYFs

**T4 Aktion: eutanasia nazia.**
https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/aktion-t4-sineste-osoz-hiltzen/

## 2.3. IRTEERAK

Osasun-egoeraren arabera eta Hezkuntza Sailaren eta ikastetxeen eskolaz kanpoko jarduerak egiteko protokoloen arabera egingo dira.

### A. NAFARROAKO MEMORIA HISTORIKOAREN TOKIETARA BISITAK

Adituek, eraildakoen ahaideek eta iragan traumatiko hori bizi izan ziren bizilagunek parte hartuko dute.

➲ https://www.natv.es/Noticia/Z7EF9CB5E-C4E0-63B6-CED150430F86EED5/201904/Inscritos-los-primeros-seis-lugares-de-Memoria-Historica

➲ https://www.youtube.com/playlist?list=PLihfjSXwNgBlCC_8Dr7b9FaiR6Rs1z-Gr

1. Sartagudako Memoriaren Parkea (Asociación Pueblo de las Viudas)
2. Hiru Gurutzen Gaina / Etxauri/ Erreniegako Mendilerroko Hilobiak (Zurbau eta Erreniegako Mendilerroko Hilobiak kolektiboak)
   - ➲ https://youtu.be/buwM5vuLlDA
3. Loitiko Gaineko Hilobiak / Igariko Barrakoia eta Bidankozeko gaineko oroitarria / Erronkariko Eskola (Memoriaren Bideak)
   - Igariko barrakoiaren inaugurazioa.
     - ➲ https://youtu.be/zEUoF1A34XM
     - ➲ https://youtu.be/Y6SArmZDxN8
   - Igari eta Bidankoze arteko errepidea.
     - ➲ https://youtu.be/RcBJB--hvdw
4. Aitorpen ofizialik ez duten memoriaren tokietara bisitak.

   **Pirinioko bunkerrak**

   - ➲ Auritz-Burguete (Gabinete Trama) https://youtu.be/H8vrSdGmLLk
   - ➲ Erratzu/Artesiaga (Gabinete Trama) https://youtu.be/Y8axiPA3Wrc



- Bera Peña Ratako bunkerra, Argaitzko Harrobia (Berako Udala)
  https://youtu.be/_SCsL9keoSE
- Erronkari (Pablo Orduna/ Kukula)

### B. BESTE ELKARGOETAKO MEMORIAREN TOKIETARA BISITAK

- Gernika eta Burdinaren Gerrikoa
  https://www.gogora.euskadi.eus/cinturon-de-hierro/-/informacion/cinturon-de-hierro-de-bilbao-br-mapa-interactivo/
- Gernikako Bakearen Museoa: https://www.museodelapaz.org/
- Ebroko frontea.
  https://www.escenariosdeguerra.com/la-batalla-del-ebro/
- Huesca. Orwell ibilbideak
  https://www.elperiodicodearagon.com/noticias/aragon/ruta-orwell-vuelve-ser-distinguida-sello-excelencia-turistica_1347599.html
- Gurs-ko kontzentrazio-esparrua (Terres de Mémoires et de Luttes)
  https://www.youtube.com/watch?v=JQwjNg18l4A
- Bustarviejoko barrakoiak (Madrilgo Komunitatea). Frankismoaren esklaboen lana.
  https://youtu.be/vsitJi1cNOA

## 2.4. ABIAN DAUDEN PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK

### 2.4.1. HEZKUNTZA BALIABIDEAK

A. Baliabideen bloga: http://memoriahistorica.educacion.navarra.es

B. Erakusketa birtualen programa (sortzen)
- Ezkaba 1938-2018
- Desobiratze goiztiarrak 1939-2019

C. Nafarroako Ahozko Memoriaren artxiboa
- Denboraren lerroak
- Inguruaren ezagutza birtuala ahozko testigantzekin
- Errepresioaren geobiografiak
  https://www.navarra.es/inm/es/

D. Nafarroako Memoriaren Institutuaren Dokumentu Zentroa
https://memoria-oroimena.unavarra.es/

E. Hobien mapa: http://fosas.navarra.es

F. Oroibidea: https://pazyconvivencia.navarra.es/eu/oroibidea

### 2.4.2. ELKARTRUKEAK

Aurretiazko esperientziak:

- Oloron Sainte Marie. Gurs
  https://youtu.be/gOUBF6l3zBw
- Dunkerke (San Fermin Ikastola)
  http://parquedelamemoria.org/?p=1046
- TOTEM proiektua eta eTwinning programa. Navarro Villoslada BHI.
  https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/etiqueta/ies-navarro-villoslada-eu/

## 2.4.3. “LIBERTADEN MEMORIA” UNITATE DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA ETA BANATZEA

Gerra zibila, 1936ko kolpearen ondorengo indarkeria eta II. Mundu Gerrari buruzko unitate didaktikoa. Iturrama BHIko irakasleak Oskia Ramirez eta Cristina Palaciosek egindakoa. 2018an antzeztu zen *Donde el bosque se espesa* antzerki lanaren inguruan egin zuten lanetik abiatu da. Zenbait unitate didaktiko eta material kaxa sortu dira era ikastetxeen eskura jarri dira.

Antzerki lanari buruzko dokumentala:

- https://www.youtube.com/watch?v=RnMyLfDVIms
- https://www.youtube.com/watch?v=DtJg2jZmdHg



# 3. IKASTEETXEKIN HITZARMENAK

Nafarroako Memoriaren Institutuak, Memoria duten Eskolak programan, ikastetxeekin hitzarmenak sinatzea du helburu, Memoria Historikoaren inguruko ikerketa eta berrikuntzako, prestakuntzako eta/edo pentsamendu zientifikoa zabaltzeko proiektu bateratuak bultzatzeko. Tuterako Valle del Ebro BHI, eta Iruñeko Navarro Villoslada eta Mendillorri BHIrekin hitzarmenak sinatu dira. Laster izenpetuko dira Elizondo LHIrekin, Berako Toki Ona BHIrekin edo Tierra Estella BHIrekin.

Ikastetxeren batek hitzarmen bat sinatu nahi badu, helbide elektroniko honetan jar daiteke harremanetan: inm@navarra.es

# 4. MEMORIA DUTEN ESKOLEN SAREAREN SORTZEA

## HELBURUAK

**1.** Memoriaren inguruan hezkuntza Proiektuak garatzen ari diren zentroak biltzea. Adibidez:

A. Hitzarmena IES VALLE DEL EBRO-rekin (Proiektuak: *desobiratze goiztiarrak eta Gurs*).

➲ https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/blog/2020/04/08/exhumaciones-tempranas-en-la-ribera-tudelana-1978-1979-ies-valle-del-ebro/

B. MENDILLORRI BHI: barne formazio ikastaroa, beren *Mendillorri, Memoria duen Institutua proiektua*ren testuinguruan.

C. IES NAVARRO VILLOSLADA/ Oloron Ste Marie. TOTEM (Erasmus + Proiektua)

➲ https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/etiqueta/ies-navarro-villoslada-eu/

**2.** Nafarroako Memoriaren Institututik jardueren nondik norakoak koordinatzea.

**3.** Memoria duten Eskolen Sarea osatzea.

**4.** Proiektu ezberdinen elkatrukerako espazio birtual bat sortzea.

Datozen asteetan zehar sarearen osaketa modua gauzatuko da Hezkuntza Departamentuarekin.